



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremua

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

2020ko urteko txostena

HITZAURREA:	2
1. ESPARRU OROKORRA:	3
1.1. Jarduera-eremuak:	1
1.2. Kasuen gaia eta maiztasuna:	2
2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:	3
3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN KONTSULTAK, ALDEZ AURRETIK AZTERTU BEHARREKOAK:	4
4. KEXAK:	4
4.1. Komunikazioaren eta publizitatearen inguruko 2020ko kexen espedienteei buruzko ekarpenak eta kontrastea:	6
4.2. Beste eremu batzuei buruzko kexak:	10
4. 2019ko GOMENDIOEN JARRAIPENA:	14
5. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:	14
6. IRIZPENAK:	15



HITZAURREA:

Urteko txosten honetan, Emakundek sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeria ezaren printzipioaren defentsaren esparruan 2020. urtean emandako zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek esparru horretan dituen eginkizunak eta mugak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren.

Aipatutako artikuluen arabera, lau jarduera edo arlo bereizten ditugu:

- Esparru orokorra
- Berehalako aholkularitza, telefonoz edo aurrez aurre, eskatzaileei.
- Kexen jarraipena.
- Beste erakunde eta instituzio batzuekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko mekanismoak

Txostenak, lehenengoan, eremu pribatuan sexuagatiko diskriminazio-kasuetan herritarrak defendatzeko jarduera-esparru orokorraren berri ematen du, eta erantzundako kontsulta eta kexen datu orokorrak ematen ditu; bigarren atalean, artatutako berehalako aholkularitzei buruzko informazioa jasotzen du; hirugarrenak idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterketa behar duten kontsultei buruzko informazioa ematen du. Kexa-prozedurak ere jasotzen dira, komunikazio eta publizitate sexistari buruzko kexei arreta berezia eskainiz. Azkenik, beste erakunde eta instituzio batzuekiko koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak zehazten dira.



1. ESPARRU OROKORRA:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu zuen, sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadin sustatzeko organo gisa. Hartara, bere eginkizunak eremu pribatura mugatzen ziren.

3/2012 Legeak, otsailaren 16koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko Legea aldatzen dituenak, Defentsa Erakundea ezabatzen du, eta haren edukiak, eskumenak eta eginkizunak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitzen dizkio. Bide batez, atxikipen berriaren ondorioz funtzioen doikuntza txiki bat egiten da, eta gaur egun Emakunde- Emakumeen Euskal Erakundeari honako hauek dagozkio:

- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, sektore pribatuan gerta daitezkeen sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak argitzeko.
- b) Pertsona fisiko eta juridikoei negoziazio-bideak erraztea eta gomendioak ematea, sektore pribatuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak edo -praktikak zuzentzeko, eta gomendio horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak gerta daitezkeenean.
- d) Sexu-jazarpenerako eta sexuan oinarritutako jazarpenerako kasuak errazago konpontzeko bidea izatea.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, legean xedatutakoaren arabera.
- f) Lan-agintaritzarekin lankidetzan aritzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan bereizkeriaren aurkako lan-araudia betetzen den ikusteko.




1.1. Jarduera-eremuak:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuak hainbat jarduera-eremu hartzen ditu bere baitan. Jarduera nagusia zuzeneko aholkularitza ematea da, bai telefonoz, bai aurrez aurre. Horiez gain, azterketa bat behar duten eta idatziz erantzuten diren kontsultak edo aholkuak daude, normalean posta elektronikoz. Hirugarren jarduera-eremua kexei buruzkoa da.

- Zuzeneko arretako jarduera bulegoetan (aurrez aurreko aholkularitza eta telefono-zerbitzuaren bidez).
- Idatziz erantzuten diren kontsultak, aztertu beharrekoak.
- Ikerketa-prozedurak behar dituzten kexak.

Osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioaren eta ondoren alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuak bere zerbitzuak herritarrei eskaintzen jarraitzeko erabakia hartu zuen. Pandemia-testuinguru batean herritarren berdintasun-eskubideen defentsarako arloak bere zerbitzuak eskaintzen jarraitu zuen, aurrez aurre, telefonoz edo telematikoki. Harreman hori pertsonalizatua edo fisikoa zen kasuetan, zerbitzuak ematen zituztenen nahiz eskatzen zituztenen osasunari eragin ziezaioketelako arriskuak prebenitzeko neurri egokiak hartuta.

2020an, herritarrei arreta emateko berehalako 181 zerbitzu egin dira. Idatziz erantzundako kontsultak, aldez aurretik aztertu beharrekoak, eta egindako kexa-prozedurak 87 dira guztira; horietatik 55 kontsultak izan dira (% 63), eta beste 32 kexak (% 37).



Eskatzaileek erabili duten komunikazio-bide nagusia posta elektronikoa izan da, eta zerbitzu honekin komunikatzeko gehien erabili duten hizkuntza gaztelania izan da. Eskaera guztietatik 29 euskaraz aurkeztu dira eta 2 ele bietan. Nabarmentzekoa da gero eta eskaera gehiago artatzen direla euskaraz. Prozedura horien eskatzaile gehienak emakumeak izan dira (% 80), % 17 gizonak, % 1 organismoak, aholkularitzak eta ofiziozko hasiera, hori guztia kasuaren xede den eskubidearen edo interesaren titularra edozein dela ere.

1.2. Kasuen gaia eta maiztasuna:

Prozedura horien lan esparru nagusiak, gehienbat, lan-arlokoak dira (45), komunikabideen eta publizitatearen arlokoak (15), eta, ondoren, beste gai batzuk daude, batez ere zerbitzuei buruzkoak, eta, azkenik, kirolaren arlokoak (5 eskaera). Lan-arloko kasuak, batez ere, amatasun- eta edoskitze-baimenak baliatzeari buruzkoak izaten jarraitzen dute, bai eta familia eta lana bateragarri egitetik eratorritako eskubideak baliatzeari buruzkoak ere. Aurten, kontsulta gehiago egin dira onartutako hainbat lan-arau aplikatzeari buruz, zehazkiago, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua eta Emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruzko urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua.



2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Defentsa Arloak herritarrei arreta zuzena ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan, arreta hobea eskaintzeko. Baina 2020a COVID-19ren pandemiak eta haren ondorioek markatu dute. Adierazi dugun bezala, kontaktu hori pertsonalizatua zen kasuetan, zerbitzuak ematen zituztenen nahiz eskatzen zituztenen osasunari eragin ziezaioketen arriskuak prebenitzeko behar ziren neurriak hartuta, herritarren berdintasun-eskubideak defendatzeko arloak aurrez aurre, telefonoz eta telematikoki bere zerbitzuak eskaintzen jarraitu zuen.

2020an zehar, herritarrei arreta emateko berehalako 181 zerbitzu egin dira, eta horietatik gehienak Familia-Etxeko zerbitzuari buruzko lan-gaiei buruzkoak izan dira. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuak arreta pertsonalizatua ematen zaie Familia-Etxeko Zerbitzuko langileei eta enplegatzaileei. Horrela, langile horiek, gehienak emakumeak, lan-harremanetan tratu duina izan dezaten bermatu nahi da.

Azkenik, genero-indarkeriaren gaiei buruzko 22 aholkularitza zenbatu dira, bai eta banantzei eta dibortzioei buruzko beste 77 aholkularitza ere; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuaren eskumen-eremuan sartzen ez badira ere, kontsulta oso errepikatuak izaten dira. Azpimarratzekoa da, gainera, arazo ugari dituzten emakumeen (ekonomikoak, etxebizitzakoak, familiakoak...) aholkularitza-eskaerak ugaritu egin direla.

Eskaeren tipologia	
Lana	65
Bikote-harremanak eta familia-harremanak	77
Indarkeria	22
Bestelakoak	17
	181



3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN KONTSULTAK, ALDEZ AURRETIK AZTERTU BEHARREKOAK:

Idatziz erantzundako kontsultak, aldez aurretik aztertu beharrekoak, 55 izan dira guztira. Eskaera horiek aipatzen dituzten arrazoen artean, lan-arloari buruzko gaiak daude, zehazki 31 lan-eremuari buruzkoak izan dira; bestelakoetan (18), kontsulta gehien hartzen dituen hurrengo eremuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuari ez dagozkion gaiak planteatzen dituzte, baina eskaera egiteko eragatik orientazioa eta idatzizko aholkularitza jaso dute. Kirolaren eremuan 4 aholkularitza zenbatu dira; 1 elkartean eremuari buruzkoa izan da; eta, azkenik, idatzizko erantzuna eman zaio komunikabide batean argitaratutako albiste bati buruzko aholku eskariari.

Lan-eremuan, nabarmentzekoak dira kontziliazio-eskubideak baliatzeari buruzko kontsultak; zehazki, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua (enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa) onartu zenetik, ugaritu egin dira aitatasun-baimenari eta edoskitze-baimenari buruzko kontsultak. Nabarmentzekoa da, halaber, azken urteotan gora egin duela sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko protokoloen onarpenari eta aplikazioari buruzko kontsulten kopuruak. Urtearen amaieran, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua eta emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzko urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua onartu ondoren, kontsulta asko jaso dira enpresen eta aholkularitza-enpresen aldetik dekretu horien aplikazioari buruz.

4. KEXAK:

Sexuagatiko diskriminazio-kasuetan herritarrak defendatzeko esparru juridikoa zabala eta konplexua da gaur egun. Ondoren, oro har, berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea defendatzeko jardunaren babesa ematen duten oinarritzko arauen erreferentziak jasotzen dira:

- Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa



(CEDAW); NBEren esparruan onartutako nazioarteko araua, zeinaren arabera estatu sinatzaileek adosten baitute, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen aurkako diskriminazioa ezabatzea bideratutako politika bat jarraitzea. Ildo horretatik, "Emakumearen aurkako bereizkeria" da sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, baldin eta horren xedea edo ondorioa bada emakumeak, bere egoera zibila gorabehera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarrituta, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak aitortzea, gozatzea edo erabiltzea kaltetzea edo deuseztatzea, esparru politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturean eta zibilean edo beste edozein esparrutan.

- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak legearen arabera berdina direla, eta ezin dela sexu-bereizkeriarik egin.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa. Lege horren arabera, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak esan nahi du ez dagoela inolako bereizkeriarik, ez zuzeneko ez zeharkakorik, sexuaren zioz, eta, bereziki, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondorioz.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, 3/2012 Legeak aldatua. Lege horrek, tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, debekatu egiten du pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein dela ere horretarako erabiltzeko modua.

KEXA-PROZEDURAK:

2020an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuak 32 kexa-prozedura garatu ditu. Espediente guztietatik 15 gomendio eman dira, guztiak ere emakumeen eta gizonen aukera-eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko proposamenetan oinarrituta. 12 espediente beste erakunde batzuetara bideratu dira, eta bideratutako kexa gehienak publizitateari edo komunikabideei



buruzkoak izan direnez, horietako 7 Madrilgo Emakumeen Institutura bideratu dira. Beste kexa batzuk, Arartekora eta zegokien administrazio publikoetara bideratu dira. Azkenik, 3 eskaera artxibatu dira, bi, planteatutako gaiak ez direlako sartzen sexuagatiko diskriminazioaren eremuan, eta kasu batean, eskaera bidali duen pertsonak ez duelako bidali ikerketa-prozedura bat hasi ahal izateko eskatutako informazio gehigarria.

4.1. Komunikazioaren eta publizitatearen inguruko 2020ko kexen espedientei buruzko ekarpenak eta kontrastea:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuak eta Begira Batzordearen arteko lankidetzeta-betebeharra aplikatuz, defentsa eremu horrek kudeatu ditu herritarrek publizitateari eta komunikabideei buruz jarritako kexak, bai eta Batzordeak berak ofizioz aurkeztutakoak ere.

2020an, 14 kexa-espediente eta aholkularitza-kontsulta izapidetu dira. Jasotako kexa-kopurua handiagoa izan bazen ere, Q2020076 espedienteak 4 eskaera metatu zituelako, zehazki Youtubeko bideo bati buruzko espedienteaz ari gara. Bertan, gizon bat emakume bat jotzean datzan japoniar bideojoko bati buruz hitz egiten ari da. Gainera, Q2020081 espedienteak 6 eskaera metatu ditu, zehazki, Metro Bilbaoren 25. urteurrenaren publizitateari buruzko espedienteak.

Jasotako kexetan oinarrituta, Begira Batzordeak 6 gomendio bidali dizkie hainbat erakunderi, guztiak Kode Deontologikoan eta bi Dekalogoetan jasotako printzipioetan oinarrituta. 6 eskaera bideratu dira, gehienak Emakumeen Institutuko Madrilgo Irudiaren Behatokira, eta bat Institut Català de les Dones erakundera. Euskal hedabide bateko albiste publiko bati buruzko aholkularitza-eskaerari erantzun zaio. Azkenik, azpimarratu behar da publizitatea bertan behera uzteko errekerimendu bat bidali dela.

Kexak bidaltzen dituzten pertsonen profilarri dagokionez, honako hau da: emakumea, 31 eta 40 urte artekoa, unibertsitate-ikasketak dituena eta lanaldi osoko lan-egoera duena.

Kexaren, publizitatearen edo komunikazioaren tipologiaren arabera, 8 publizitateari buruzkoak dira eta 6 komunikazioari buruzkoak. Publizitatearen esparruan, batez ere genero-estereotipoak eta -rolak



indartzen zirela uste zen iragarkietara zuzenduta daude, bai eta gaztetasunari, argaltasunari, gorputzaren perfekzioari eta emakumeen gorputzaren gauzatzeari lotutako edertasun-eredu bakarra zegoela ere. Komunikazioaren esparruan, batez ere emakumeen aurkako indarkeria hutsaltzen duten eta emakumeen irudi estereotipatua helarazten duten kexak dira.

Erakunde horrekin harremanetan jartzeko herritarrek aukeratu duten hizkuntzari dagokionez: eskaera gehienak gaztelaniaz daude, baina gero eta gehiago dira euskaraz ere aurkezten direnak, zehazki 4 izan dira; eta kasu batean eskaera bi hizkuntza ofizialetan bidali du eskatzaileak.

Jasotako kexak, edukien tipologiaren arabera:

Jasotako kexak, bai publizitateari buruzkoak bai komunikazioari buruzkoak, 2020an indarrean zeuden inprimakietako puntuetan oinarrituta aztertu eta sailkatu dira:

Publizitate sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_publicitate_sexista.pdf

Komunikazio sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_komunikazio_sexista.pdf

Publizitate-edukiak:

Erabilera sexista mota nagusiak hauek izan dira: emakumeen gorputza erabiltzea objektu estetiko/sexual gisa eta gaztetasunean eta osasunerako jarrera kaltegarriak ere susta ditzaketen gorputz-ereduetan oinarritutako edertasun-ereduak bultzatzea.



Publizitateari buruzko kexak Defentsa eremuaren eskumen-eremuaren baitan

Jasotako kexetan oinarrituta, Begira Batzordeak gomendioak bidali dizkie egoitza soziala EAEn duten hainbat erakunderi. Gomendio guztiak publizitate-dekalogoaren aplikazioan oinarritzen dira.

Gomendioak jaso dituzten enpresen artean honako hauek daude: Master Cup, Abando Garbiketak, Metro Bilbao.

Eskumen-arrazoiengatik bideratu diren publizitateari buruzko kexak:

Begira batzordearen jarduketarako lurralde-eremua EAE da eta, beraz, gure erkidegoan egoitza duten erakunde publiko eta pribatuak (bai publizitate eremua bai komunikazioarena) sartzen dira eskuduntza eremu horretan.

Hala ere, era guztietako kexak jasotzen dira, aztertu egiten dira eta Batzordearen eskumen-eremutik kanpo geratzen badira, organo eskudunera bideratzen dira, kexa bidali duen pertsonaren berariazko baimenarekin. Aurten kexak Estatuko Emakumeen Institutuaren Emakumeen Irudiaren Behatokia eta Institut Català de les Dones erakundera bideratu dira. Kexak jaso dituzten enpresa iragarleak honako hauek izan dira: Old Spice, U-Power.

Komunikazio-edukiak:

Komunikazioaren esparruan, batez ere emakumeen aurkako indarkeria hutsaltzen duten kexak dira; baita, emakumeak eta gizonak modu desberdin eta estereotipatuan erakusten eta erlazionatzen dituztenak.

Komunikazioari buruzko kexak eskumen-eremuaren barruan:

Lehen esan bezala, Begira Batzordeak ez du berariazko eginkizunik komunikazioaren arloko kexak jasotzeko. Hala ere, eta hedabideetako edukiek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin bat datozen



edukiak ematea bultzatzeari dagokionez esleitutako gainerako funtzioak garatzeko, kexa horiek bi helbururekin jasotzen dira: lehenik eta behin, gomendioak emateko eta hedabideekin gai horiei buruzko sentsibilizazio-estrategiak garatzeko, eta, bigarrenik, ikusleek gutxien onartzen dituzten edukiak hautemateko. EAEko hedabideak direnez, gomendioak bidali zaizkien enpresen artean honako hauek daude: El Correo, El Diario Vasco, Efe Agentzia.

Eskumen-arrazoiengatik bideratutako kexak:

Publizitatearen esparruan bezala, komunikazioaren arloan ere Begiraren eskumen-eremutik kanpo geratzen diren kexak jasotzen dira. Beraz, kexa horiek dagozkien erakundeetara bideratzen dira, gehienak Estatuko Emakumeen Institutuaren Irudiaren Behatokira. Kexak komunikabide hauek jaso dituzte: Antena 3eko 'La Ruleta de la Suerte' telebistako lehiaketa eta Amazon.

Beste komunikazio-tresna batzuk:

Youtube: gizon batek emakume bat jotzean datzan bideo joko japoniar bat komentatzen duen bideoa. Emakumeen Institutuarekin adostu da Youtuben batera emakumeen aurkako indarkeria bultzatzen duen bideoa salatzea.

Publizitatea eteteko errekerimenduak:

Publizitatea berehala bertan behera uzteko errekerimendua bidali zaio Limpiezas Abando-ri. Alde batetik, Limpiezas Abandok publizitate-iragarki bat zabaldu zuen irratian bere zerbitzuak sustatzeko, kexaren arabera ondorengoa zen iragarkiaren mezua: "badira egun batzuk ez dutela eskailera garbitzen. Bai, neska bajaran dago ". Bestalde, 2018an, enpresarekin harremanetan jarri ginen beste publizitate-kanpaina batekin lotuta. Kasu hartan ere, modu estereotipatuan aurkezten zituzten emakumeak. Gainera, etxeko alfonbren garbiketaren publizitatea egiteko bere webgunean emakume bat objektu apaingarri gisa erakusten zuen irudi bat erabiltzen zuten, publikoaren arreta bereganatzeko modu gisa, publizitateko produktuarekin harremanik izan gabe.



Horren guztiaren arabera, eta Publizitatearen Lege Orokorraren 3 a) artikulua arabera, goian aipatutakoak emakumearen duintasunaren aurkako publizitate-kasuak direlako, publizitate sexistatzat jo daitezke. Aldi berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau ezartzen du 26.2. artikuluan: "*Debeku da pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman eta erakustea, bai eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere*".

Illo horretan, jasota utzi behar da Limpiezas Abando enpresak erakunde publiko honek egindako eskakizun guztiak bete dituela.

4.2. Beste eremu batzuei buruzko kexak:

Lan-esparrua:

Lan-esparruari buruzko hainbat kexa-eskaera jaso dira, eta hainbat gairi buruzko kasuak aurki ditzakegu, hala nola bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko eskubideak baliatzea; amatasunaren eta aitatasunaren ondoriozko diskriminazio-kasuak; eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kasuak.

Alde horretatik, honako hauek dira berariazko aplikazio-arauak:

- Langileen Estatutua, zeinaren 17. artikulua sexuaren ziozko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak eragiten dituzten erregelamendu, hitzarmen, itun eta erabakien deuseztasuna ezartzen baitu.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, langileen familia-bizitza eta lana uztartzea sustatzekoa. Lege horrek garrantzi handia izan du, lan-eremuan egindako lege-aldaketan ondorioz, langileek beren lan- eta familia-erantzukizunak errazago uztartzeko.
- 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta okupazioan emakumeen eta gizonen



arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena.

Beste eremu batzuk:

Lan-esparruaz gain (eremu horrek sortu ditu kexa gehien), beste eremu batzuei buruzko kexak ere jaso dira, hala nola kirolarenak, zerbitzuenak, elkartenak eta praktika diskriminatzaileekin lotutako beste gai batzuenak. Jarraian, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Emakumeen eta Gizoneen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa eremuan aurkeztutako kexen zerrenda bat jasotzen da, kexaren arrazoa eta horren emaitza adierazita:

Q20200002 espedientea	
Kexaren arrazoa	Kexa, beka baten eskaera batean "aitaren" izena eskatzeagatik
Emaitza	Artxibatua. Kexagileak ez zuen egiaztagiririk bidali ikerketa-prozedurari hasiera emateko

Q20200004 espedientea	
Kexaren arrazoa	Sektore publikoko langile baten tratu iraingarria
Emaitza	Saileko berdintasun-teknikariari bideratua

Q20200009 espedientea	
Kexaren arrazoa	Kexa, errepide baten puntu beltza dela eta
Emaitza	Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura bideratua

Q20200016 espedientea	
Kexaren arrazoa	Erakunde publiko baten komunikazioan hizkuntzaren erabilera sexista
Emaitza	Saileko berdintasun-teknikariari bideratua



Q20200018 espedientea	
Kexaren arrazoa	Elkarte gastronomiko baten estatutu diskriminatzaileei buruzko kexa
Eraitza	Izapidetzen

Q20200027 espedientea	
Kexaren arrazoa	Enplegu bat lortzeko diskriminazioa
Eraitza	Izapidetzen

Q20200028 espedientea	
Kexaren arrazoa	Udako campusa mutilentzat bakarrik antolatzen duen futbol-federazioa
Eraitza	Gomendioa

Q20200043 espedientea	
Kexaren arrazoa	Kexa enpresak soilik lanaldi murriztua duten emakume langileak sartzen dituelako aldi baterako enplegua arautzeko espedientean
Eraitza	Gomendioa

Q20200047 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lanpostura iristeko sistemari buruzko kexa
Eraitza	Emakumeen Institutura bideratua



Q20200049 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Sexu-arrazoiengatiko jazarpena
Eraitza	Gomendioa

Q20200050 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Hizkuntza sexistaren erabilera
Eraitza	Gomendioa

Q20200060 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Herri-administrazio bateko langile baten ustezko diskriminazioa
Eraitza	Artxibatua

Q20200062 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Administrazio publiko bateko lan-poltsak eta amatasuna
Eraitza	Arartekora bideratua

Q20200077 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Jabekide bati auzo-batzorde batean parte hartzeari uko egitea, emakumea izateagatik
Eraitza	Gomendioa



Q20200080 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Hizkuntza sexistaren erabilera
Eraitza	Gomendioa

Q20200082 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Parke publikoko batean ekimen pribatuko seinaletika sexista dagoelako kexa
Eraitza	Bideratua- Gomendioa

Q20200084 espedientea	
Kexaren arrazoaia	Kexa, unibertsitatera sartzean egon daitekeen diskriminazioari buruzkoa
Eraitza	Unibertsitateko berdintasun-arlorra bideratua

4. 2019ko GOMENDIOEN JARRAIPENA:

2020. urtean, 2019. urtean emandako gomendioen jarraipena egiten da. Kasu horietan guztietan, emandako gomendioarekiko konpromisoa adierazi dute erakundeek.

5. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:

Beste erakunde batzuekiko harremanari dagokionez, 2020. urtean harremanak eta bilerak izaten jarraitzen da erakunde publikoekin, hainbat lankidetzeta-mekanismo ezartzeko.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin lankidetzan jarraitzen dugu, eta



hainbat lan- eta koordinazio-bilera egin dira.

Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzaren Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren zuzendariordetzaren arteko lankidetzaren esparruan, hainbat kexa bideratu dira, eta erakunde horren eskumenekoak ziren. Halaber, sail horrekin bilera tekniko politiko batean parte hartu da.

Azkenik, EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin lankidetzan jarraitzen da. Klinika hori diskriminazioaren aurkako estrategiak diseinatzeko eta unibertsitatearen esparruan giza eskubideak defendatzeko laborategi bat da, eta, aldi berean, Zuzenbidearen ikaskuntza eta eraldaketa pedagogikorako gune bat da.

6. IRIZPENAK:

SPAJLren 95.3 artikulua ezartzen duenez, "Prozesuan sexuagatiko bereizkeria-arazoa sortu bada, epaile edo auzitegiak erakunde publiko eskudunen irizpena eskatu ahal izango du".

Ildo beretik, 3/2012 Legearen 71. artikulua ezartzen du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea zerbitzu eskuduna dela Lan Prozedurari buruzko Legearen 95. artikulua 3. paragrafoan aurreikusitako irizpenak emateko".

Gasteizko Lan Arloko 3. Epaitegiak irizpena eskatu zion Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari, bi langilek genero-bereizkeriagatik aurkeztutako demandari buruz. Irizpenean baietsi zen eskatzaileek maila baxuagoko lanbide-kategoriak izatea eta, ondorioz, soldata baxuagoa izatea, nahiz eta lan berdinak edo balio berekoak egin, enpresak objektiboki eta arrazoiz justifikatuta desmuntatu beharko lukeen diskriminazio-zantzu bat zela.